

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Bigarren puntu honetan merkatu segmentazioan gaude. Puntu honetan zein bezero motak aurkeztu edota edukiko ditugunak azaldu behar ditugu.

Guk bi bezero mota izango ditugu: alde batetik, Gasteizko hortz-klinikak eta bestetik, hortz-klinika horietara joaten diren pazienteak.

Guk klinikari webgunea salduko diogu eta haiek kudeatu ahal izango dute. Webgune honetan odontologoa, higienistak eta pazienteak sartu eta hitz egingo dute beraien tratamenduen emaitzak, arazoak eta kezkek partekatzeko. Beti ere aho eta hortzen osasunera orientatuta.

Webgune honetan egongo da eskuragarri salduko dugun beste produktua Haginpic aparatua hain zuzen ere. Aparatu hau, aldiz, ez dago klinikei zuzenduta, pazienteei baizik. Klinikei webgunea salduko diegu eta gero, haiek eskeiniko dizkiete beraien pazienteei.